



**2022KO AZAROAREN 24KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko azaroaren hogeita lauan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko urriaren 27an egindako ohiko bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**III.- AZAROAREN 25ERAKO EAJ-PNV-K AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.-**

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) irakurri duen adierazpenak honakoa dio:

**"AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPENA, 2022KO EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA**

Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan

Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun individual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia



gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabilera, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufrizten ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak», espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabec, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Esparru horretan, Lazkaoko Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

- 1.- Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko
- 2.- Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.
- 3.- Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.
- 4.- Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrianak kontuan har daitezen.





- 5.- Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta nesKentzat.
- 6.- Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio harrিতa daudela EAJ-k adierazpena aldebakarrez argitaratu duelako web orrian Osoko Bilkurara eraman aurretik.

Alkateak dio adierazpena, onartzeko ekarri dutela Osoko Bilkurara. Bertan berresteko eta horren berri emateko. Udalak web orrian egin duen adierazpen instituzionala eta Osoko Bilkurara eraman duten adierazpena ez direla testu bera, nahiz eta lehena bigarren adierazpen horretan oinarrituta egon. Batetik Udalak egin duen adierazpen instituzionala dagoela eta bestetik EAJ-k egin duena, Eudelek proposaturikoa.

Bestalde, Ormazabal zinegotziak adierazpenarekin lotura duen beste puntu bat argitu nahi du. Dioenez, Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna dela eta, iturri desberdinetatik iritsi zaio azken Berdintasun batzordean Udalak eta eragileek arratsaldeko 19:00etan ekitaldi bateratu bat egitea erabaki zutela elkarrekin, eta Udalak ondoren aldebakarrez erabaki duela beste ekitaldi bat antolatzea 12:00etan, batzordean onartu zenari jaramonik egin gabe.

Alkateak dio ez dela hori teknikarien bidez iritsi zaiona. Berdintasun batzordean eragile batzuekin bildu zirela baina ez zirela ados jarri, eragile batzuk agenda propioa osatuta eraman zutela, jakinda Udalak 19:00etan ekitaldia egiteko deialdia egiteko asmoa zuela. Beraz ikusi zutela ez zela posible ekitaldia elkarrekin egitea, ez zelako nahi. Testu bakarra adostu nahi zela eta mezu bakarra ematea, baina ez zela posible izan eta bakoitzak berea defendatzea egokiago ikusi zutela.

Ormazabalek berriz dio ez dela hori iritsi zaiona, adostuta gelditu zela esan diote. Batzorde horretan zehaztu zutela nork irakurriko zuen testua euskeraz eta nork erderaz.

Alkateak eta Naldaizek diote ez zutela testurik aurkeztu eta egun horren inguruan antolatu diren hainbat ekimen ez direla batzorde horretan landu, hortik kanpo antolatu direla. Honez gain, teknikariak esan ziela ezin zirela ados jarri eta ez zegoela ekitaldia elkarrekin antolatzeko aukerarik.

Goñi zinegotziak (EAJ) dio ez zutela esan beraiek testua erderaz irakurriko zutenik, eragileek esan zutela beraiek programa dagoeneko zehaztuta zutela eta ez zutela denborarik.

Adierazpenaren gaira bueltatuta, Ormazabalek dio testuak akatsak dituela eta hizkuntza aldetik hobetu daitekeela. Proposatutako konpromisoak oso generikoak direla, zehaztasunik gabeak. Bilduk 3 proposamen konkretu egiten ditu:



- 1.- Emakunderekin, Foru Aldundiarekin, Berdinsarearekin, herriko talde feministarekin, emakume-taldearekin eta gainerako eragileekin lankidetzan, berdintasun-plana diseinatuko dugu 2023an.
- 2.- Planaren diseinuan berariazko arreta jarriko diogu sexu-indarkeriari, nahiz espazio publiko eta pribatuetan diren presentzia eta segurtasun-maila desberdintasunei. Horiei aurrea hartzeko eta atzematen diren arazoei erantzuteko neurriak jasoko ditu planak.
- 3.- Plan hori diseinatu ahal izateko behar diren langileak edo aholkularitza-zerbitzua kontratatuko du udalak eta 2023ko aurrekontuak ixterako, dagokion partida izendatu eta diruz hornituko du.

Alkateak dio, ez dela egokia Osoko Bilkuran hau horrela planteatzea, ez forma eta ez prozedura aldetik. Izan dutela lehen ere astia bilkuran aurkeztuko zen dokumentazioa aztertzeko eta beraien adierazpena aurkezteko. EAJ-k planteatu dituenak ez direla puntu orokorrak, zehatzak direla. Eta ez duela beharrezkotzat jotzen puntu gehiago gehitzea.

Ormazabalek dio astelehenean izan zutela adierazpenaren berri, lehendik ez zekitela hau aurkeztuko zutenik. Udal funtzionamenduaren legea irakurri duela eta mozioa aurkeztu daitekeela, baita bilkura hasteko momentuan ere, bai idatziz eta bai ahoz. Berez, EH Bilduren proposamenaren berandutasuna ez dela bidezkoa. Mozioa gai ordenaz aparteko zerbait dela. Legeak diola gai ordena amaitu eta galdera-erreguetara sartu aurretik bilkura buruak galde-tuko duela ea talde politikoren batek ba ote duen mozioren bat aurkezteko larrialdiagatik edo orduan aurkeztu nahi denik, eta orduan erabakitzen dela gai hori eztabaidatu edo ez.

Alkateak dio bazegoela lehendik ere astia adierazpena aurkezteko eta Ormazabalek dioen hau ez dela horrela bere ustez, argitu beharko dela. Mozio bakarra dutela mahai gainean eta hori bozkatu beharko luketela.

Ormazabalek, beren proposamena zein izan den idatziz jasotzea eskatu du.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV) eta aurkako 6 botorekin (EH Bildu), adierazpena onartu du.

#### IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

